

ERRETERIAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA



Plan Orokorraren Bulegoa  
Oficina del Plan General

---

---

## XI. **ESPAZIO PUBLIKOAK**



## **XI.01. HIRIKO PARKE ETA LORATEGIAK**

---

Dokumentazio grafikoan espazio libre urbanizatuak eta oraindik urbanizatzeko dauden espazio libre kalifikatuak irudikaturik daude.

Bere garrantziagatik, inolako zalantzarik gabe, Arramendi Parkea nabarmendu beharra dago. Indarreko Arau Subsidiarioek, Espazio Libreen Sistema Orokorreko funtsezko elementu gisa, Arramendi 36. Sektorea zehazten eta finkatzen dute. Lur-azalera hori, kontuan izanik bere hedadura, Herrigunearekiko hurbiltasuna eta paisaiaren ikuspegitik duen kokapen garrantzitsua, udalerrri honek gaur egun ez duen eta hain premiazkoa zaion Hiri Parke hori egiteko lur-eremurik egokiena da.

Eragindako lursail hori guztia udalarentzat izan dadin, Arau Subsidiarioek jarduketa-sistematizat besterentzearena finkatu dute. Nolanahi ere, zehaztu beharra dago orain artean aurreko jabeekin elkarrekiko adostasunez egin izan diren lurzoruen eskurapenen ondorioz, Udala dagoeneko %80 baino portzentaje handiagoa den lur-azalera baten titularra dela.

Diseinu-irizpideei dagokienez, Arramendi mendia Hiri Parkearen izaera berri horretara egokitzeko orduan kontuan izan da errespetu handiz jokatu behar dela bertako topografiarekin. Alde horretatik, sestra-kurbetara egokitutako mendi-bideen sare bat jarriko da besterik gabe, erabiltzaileak bertan oinez ibil daitezzen. Jakina, hiri-altzariez hornitu beharko da, eta batez ere, zuhaitz eta zuhaixka kopuru handi samar bat jarri beharko da aukeratutako espezie desberdinetakoak, lorategi botaniko bat bihurtu ahal izan dadin. Era berean, mendi-tontorrean kokaturik dagoen Gotorlekuaren hondakinen birgaitzeari ekitea aurreikusita dago.



**XI.02.**  
**LANDAKO PARKEAK**

---

LA Aetan Donostiako Eskualde Egituran sartuta dagoen "Aisialdirako Areen eta Lurraldean sartzeko Guneen Sistema Bateratua" 2. eranskinean, udalerrri honetako Aisialdirako Areen barruan honakoak aipatzen dira:

- Aiako Harria/Urdaburu
- Landarbaso/Listorreta
- Lau-Haizeta

San Markoseko gotorlekuaren inguruan egun dagoen parkeaz gainera, Listorretako parkea ere aipatu beharra dago, 186.454 m<sup>2</sup>-ko azalera duela.